

12/18

irizpena

Jendurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren
Legea garatzen duen erregelamendua
onesten duen

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2018ko uztailaren 5ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I.- AURREKARIAK

2018ko ekainaren 14an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Segurtasun Sailaren idazkia sartu zen eta "Ikuskizun Publiko eta Garapen Jardueri buruzko Legearen Garapen Araudia onartzen duen Dekretu Proiektuari" buruz txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Helburua 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Ikuskizun Publiko eta Aisialdi Jardueri buruzkoa (aurrerantzean IPAJL), egiteko tokiei eta baldintzei, zaintza, kontrol eta ikuskapenari, zigorrak erregistratzeari eta berriz hezteko neurriak arautzeari dagokienean araubidez garatzea da.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak bidaltzeko eta horien berri Lan Batzordeari emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Arautegiak xedatutakoarekin bat. 2018ko ekainaren 27an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hark hartutako akordioak abiapuntu hartuta, honako irizpen proiektua egin zen, Batzordearen uztailaren 5eko Osoko Bilkurari aurkezteko, non aho batez onetsi baitzen.

II.- EDUKIA

Arau proiektuaren testuak 125 artikulatu ditu eta 12 kapitulutan, 5 xedapen gehigarritan, 7 xedapen iragankorretan, indargabetzaile batean eta 3 azkenetan egituratuta dago eta 4 eranskin ditu, hurrenez hurren, honakoekin: ikuskizunen, aisialdi jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa, osasun horniduren baldintzak, ikuskapenean helburuak eta lehentasunak eta establezimenduko idazkun edo plakaren baldintzak.

Zioen azalpena

Dekretu honen bidez IPAJL legeak arautegira bideratzen duen alderdietan araubidez garatzen dela aipatzen da.

Erregulatzeko eta ez-erregulatzeko hautabidezko konponbide desberdinak balioetsi arren, arloari buruz arautegia ez zezan gara, azkenean, argi gelditu zen legearen hainbat alderdi araubidez zehaztu behar dela.

Ilido horri eutsiz, behar den alderdietarako araudia halabeharrezkoa da, hori egon ezean,

legezko aginduak ez baitu birtualtasun osoa lortuko. Baina, aldi berean, bestelako ustezkoetan behar da, interpretazio zalantzak argitzeko eta aurreko araubidezko arautegia lege berriaren printzipioei egokitzeko.

Hala eta guztiz ere, aurreko legea garatzeko sortu ziren sektoreko araudi batzuk edo bereziak (hala nola, zezenketa eta piroteknia ikuskizunei buruzko arautegiak edo erreklamazio orrien eta nahitaezko aseguruaren inguruko arauak) oso-osorik berriz formulatzea ez da beharrezkotzat jotzen.

Zehatz-mehatz esanda, legeak araubidezko garapenera bidaltzen du honakoetarako: legeak berak eranskin bezala duen establezimendu, ikuskizun eta jardueren katalogoa aldatzeko; araubide bereziko establezimenduak definitzeko; onartze eskubidea erabil dadin baldintzak arautzeko; sarrerak saltzeko baldintzak; ordutegiaren araubidea; pertsona antolatzaileek adinen arabera sarrera kalifikatu eta mailakatzeko; adingabekoentzako saioen baldintzak; sarbideak kontrolatzen dituzten langileen gaitzea arautzeko; segurtasun zerbitzuak, zerbitzu higienikoak, osasunari buruzkoak, etab. beharrezkoak diren ustezkoak zehazteko; zigorren erregistroa arautzeko eta zigor arinak ez daitezen gauza borondatez hezten duten neurriak definitzeko.

Xedapen gorputz

“XEDAPEN OROKORRAK” I. KAPITULUAK 1etik 3ra bitarteko artikulua ditu eta dekretuaren xedea nahiz aplikazio eremua arautzen dira. Era berean, egiteko tokiari buruzko hainbat kontzeptu definitzen da, zehazki, establezimendu publikoak, araubide bereziko establezimenduak, funtzionamendu maila desberdina duten establezimenduak, barrutiak, espazio irekiak edo publikoak eta espazio mugatuak, sarbide mugak dituztenak).

“EGITE TOKIETAKO BALDINTZAK” II. KAPITULUAK (4.etik 28. artikulura) ikuskizunak eta aisialdi jarduerak egiteko tokiei eska dakizkiekeen baldintza tekniko eta egiturazkoak arautzen ditu eta 5 ataletan banatuta dago.

Lehenengo atala. *Sendotasuna, egitura segurtasuna eta irisgarritasuna*. Halaber, edukiera baldintzak arautzen dira.

Bigarren atala. *Suteen eta bestelako arriskuen aurkako prebentzioa eta segurtasuna*. Horretan zehar suteen eta bestelako arriskuen arloan segurtasuna, ebakuazio neurriak, seinaleztapena, larrialdiko argia, suteen kontra babesteko ekipoak eta sistemak lantzen dira, autobabeserako planarekin batera.

Hirugarren atala baldintza akustikoen ingurukoa da eta eragin akustikoa aztertzeko kasuistikak eta herri bidean eragina prebenitzeko erregistratzailearekin soinu mugatzaileak nahiz neurriak arautzen dira ere bai.

Laugarren atalak establezimendu mota desberdinetan higie eta osasun baldintzak ditu eta aldagela, kamerinoetan eta arropa zaindegietan aireztapenari dagokionez eska daitezkeen baldintzak xedatzen dira.

“INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA III. KAPITULUAN (29. artikulutik 31. artikulura) establezimenduko idazkunak edo plakak, baita iragarkiek eta publizitate programek ere izan behar dituzten baldintzak arautzen dira. Era berean, iragarri eta jaso behar den bestelako informazioa ageri da.

ORDUTEGIAK IV KAPITULUAN (32tik 38. artikulura) EAren eremuan ikuskizun publikoen eta aisialdi jardueren ordutegiak eta jardueri buruzko beste alderdi batzuk zehazten dira,

hala nola, amaitu eta hustea, nahitaezko ixte denboraldia, lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzea eta ordutegi bereziak.

“SARREREN ETA ABONUEN SALMENTA” V. KAPITULUAK (39 eta 49 artikuluen bitartean) sarrerek eta abonuek bete behar dituzten baldintzak zehazten dira, prezioak finkatzeko mekanismoa, salmenta eta bere kanalak (salmenta puntuak, salmenta mota: telematika, komisioen araberakoa...). Halaber, bertan behera uzte eta dirua itzultzeko baldintzak daude.

“ONARTU ETA BERTAN EGOTEKO BALDINTZAK” VI. KAPITULUA (50. artikulutik 57. artikulura) bi ataletan banatzen da. Lehenengoan baldintza orokorrak eta bereziak arautzen dira eta bigarrenean haurrak eta gazteak babesteko ekintzak.

“EGOKITZE ETA SEGURTASUN BALDINTZAK” VII. KAPITULUAN (58. eta 84. artikuluen artean) 7 atal aurkez daitezke eta, hurrenez hurren, ondorengoei buruzkoak dira: sarbide kontrolak eta edukiera, onartze zerbitzuaz arduratzen diren langileak gaitzea, segurtasun pribatuari buruzko zerbitzuak, moldapen eta ebakuazio neurriak, lehen sorospenak eta osasun laguntza, aseguruak eta boluntarioak.

VIII. eta XX. KAPITULUEN artean (85-107 artikulua) **GAITZE TITULUETARAKO** baldintzak arautzen dira:

- **ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN** (araubide bereziko establezimenduak barne, edukierak 600 pertsona gainditzen baditu).
- **BEHIN BEHINEKO INSTALAZIOETAN**, besteak beste, barraka eta festa eremuetan.
- **IKUSKIZUNAK ETA AISIALDI JARDUERAK EGITEKO** establezimendu eta espazio irekietan.

XI. KAPITULUA (108. artikulutik 117. artikulura) baldintza teknikoan **MANTENTZE-LAN, IKUSKAPEN** eta **KONTROLARI** buruzkoa da.

Eta **XII KAPITULUAN** (117.etik 125. artikulura) **ZIGORREN ERREGISTROA ETA BERRIZ HEZTEKO NEURRIAK** lantzen dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Titulartasunean edo egoitzan aldaketak jakinaraztea.

Bigarrena.- Ikuskizunak edo aisialdi jarduerak animaliekin.

Hirugarrena.- Behin-behineko instalazio puzgarriak.

Laugarrena.- Erabilera kolektiborako igerilekuak.

Bosgarrena.- Ikuskapenaren helburuak eta lehentasunak berraztertzea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Espedienteak izapidetzen.

Bigarrena.- Katalogoari egokitzea.

Hirugarrena.- Establezimenduak egokitzea.

Laugarrena.- Udal titulartasuneko establezimenduak.

Bosgarrena.- Onartzeko baldintza bereziak.

Seigarrena.- Onartze zerbitzuko langileak

Zazpigarrena.- Zigorren erregistroa funtzionamenduan jartzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

ERANSKINAK

I- Ikuskizun, aisialdi jarduera eta establezimendu publikoen katalogoa.

II - Osasun hornidurak.

III - Ikuskapenean helburuak eta lehentasunak.

IV - Establezimenduaren idazkuna edo plaka.

III.- GOGOETA OROKORRAK

1. IPAJLk Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta aisialdi-jarduerak arautzen ditu, bai eta horretarako erabiltzen diren establezimendu publikoek eta espazio irekiek bete beharreko baldintzak eta betekizunak ere. Legeak araubidezko garapenera bidaltzen du, besteak beste, honakoetarako: legeak berak eranskin bezala duen establezimendu, ikuskizun eta jardueren katalogoa aldatzeko; araubide bereziko establezimenduak definitzeko; onartze eskubidea erabil dadin baldintzak arautzeko; sarrerak saltzeko baldintzak; ordutegien araubidea; pertsona antolatzaileek adinen arabera sarrera kalifikatu eta mailakatzeko; adingabekoentzako saioren baldintzak; sarbideak kontrolatzen dituzten langileen gaitzea arautzeko; segurtasun zerbitzuak, zerbitzu higienikoak, osasunari buruzkoak, etab. beharrezkoak diren ustezkoak zehazteko; zigorren erregistroa arautzeko eta zigor arinak ez daitezen gauza borondatez hezten duten neurriak definitzeko.

2. Onartzen denean 4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, eta lege berriaren kontra doazen araubidezko xedapenak indargabetuko dira. Indargabetutako legea zati batean arautegi desberdinekin garatu zen. Bereziki, orduak, zezenketa ikuskizunak, piroteknia artifizioekin ikuskizunak eta ikuskizun publikoak nahiz aisialdi jarduerak egiteko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautu ziren. 4/1995 Legea, berriz, beste alderdi batzuetan araudiekin ez zen osatu, beraz, 1982ko ikuskizunen zaintzari buruzko araudi orokorrak xedatutakoari erreparatu behar zitzaion. Ondorioz, IPAJL indarrean sartzen denean, aurrekoa garatzeko araubidezko xedapenek (4/1995 Legea) indarrean jarraituko dute lege berriaren kontra ez doazen bitartean eta, era berean, ikuskizunen zaintzari buruzko araudi orokor zaharraren zenbait manu aplikazio-indarraldi ordezkatzailan dirau.

3. Lege berriak Gobernua gaitzen du, zentzua argi dezan orokorrean araubidez garatzeko eta, batzuetan, berariaz osatzeko araubidezko garapenera bidaltzen du. Erregulatze eta ez-erregulatze hautabidezko konponbide desberdinak balioetsi arren, arloari buruz arautegia ez zezan gara, azkenean, argi gelditu zen legearen hainbat alderdi araubidez zehaztu behar dela.

Ildo horri eutsiz, behar den alderdietarako araudia halabeharrezkoa da, hori egon ezean, legeko aginduak ez baitu birtualtasun osoa lortuko. Baina, aldi berean, bestelako

ustezkoetan behar da, interpretazio zalantzak argitzeko eta aurreko araubidezko arautegia lege berriaren printzipioei egokitzeko.

Dena den, sektoreko zenbait araudi edo berezi, aurreko legea garatzenaren ondorioz sortutakoak, oso-osorik berriz formulatzea ez da beharrezkotzat jotzen, hala nola, zezenketa edo piroteknia ikuskizunei buruzko araudiak. Izan ere, beren funtsa izaten jarrai dezakete, aldaketa handirik gabe eta araudi orokor berrien aplikazio ordezkatzaillea mantenduko dute. Antzeko zerbait gerta liteke erreklamazio orriak edo nahitaezko aseguruak arautzen dituztenekin.

Hori guztia kontuan hartuta, positiboki balioztatzen dugu kontsultatzen ari zaigun araudiaren proiektua, hain zuzen ere, orain arte arautuak ez zeuden alderdiak eta eztabaida sortzen ari direnak arautzen baititu.

Aurrekoari eutsiz, beste alderdi batzuen artean, positibotzat jotzen dugu legezko aginduarekin bat jarduera eta establezimenduen katalogoa aldatzea, kontzeptu edo nomenklatura tradizionala saihesten baitu. Nolanahi ere, hori orain eta etorkizunean ez da oso erabilgarria eta berriari esker, sailkapenak erabilera anitz eta malguak ditu.

Atsegin handiz ikusi dugu araubide bereziko establezimenduen definizioa eta horien baldintzak kontuan hartu izana, baita egiten diren tokietan sendotasunaren, egitura segurtasunaren eta higienaren baldintzak zehaztea ere. Gauza bera gertatzen da honakoekin: ikuskizun eta aisialdi jardueratan egon eta onartzeko baldintzak eta ekitaldiak garatzen diren bitartean bake bizikidetasun eta erosotasunari buruzkoak. Azkenekoaren harira, profesionalak eskainitako onartze-kontrol, segurtasun eta moldatzeari buruzko zerbitzuak ezartzen dira, ezaugarri eta edukieraren arabera ekitaldi zehatzetarako.

Halaber, positiboa da zigorren erregistroa sortzea, behin eta berriz errepikatzen al diren antzemateko, eta neurriak berriz heztearen ingurukoak izatea. Nolanahi ere, ikusle eta erabiltzaile zigortuek borondatez onar ditzakete zigor arinak betetzearen orde.

Dena den, **zenbait alderdi aipatu nahi ditugu aurrez ikustea komenigarria litzatekeelakoan**, eginez gero dekretua hobetuko bailitzateke.

Egingo diren tokien baldintzei buruz eta, bereziki, baldintza akustikoei dagokienez

Aurrekoetan aipatutako alderdi bat azpimarratu nahi dugu. Espazio irekietan edo bide publikoetan garatzen diren ikuskizun eta jardueren kasuan, askotan kutsadura akustikoa sortzen da eta bizikidetasuna kaltetzen du.

Horregatik, gure iritziz funtsezkoa da jarduera horiek kontrolatzea eta nahasitako biztanleei informazio eta komunikazio prozesuak bermatzea.

Ordutegiei buruzkoa

Establezimendu multzo desberdinetan finkatutako ordutegiei dagokienez, baita proposatutako testuan ageri diren zerbitzu zehatzen funtzioei (arropazaindegia, onartzea, segurtasuna...) buruz ere, esan beharra dago halako edozein jardueratan funtzioak betetzen dituzten pertsonen lan baldintzak egon daitekeen araudi bereziarekin bat etorriko direla. Halaber, negoziazio kolektiboan zehaztutakoari erreparatuko zaio. Azken finean, une oro langileen lan eskubideak bermatuko dira.

Sarbideak kontrolatzeko langileei buruz

Atsegin handiz ikusi dugu beren jarduera arautzen dela eta profesionalizazioz hornitzen zaiela (63. artikulua. Onartze zerbitzuko langileak gaitzea), batzuetan beren jardueren ondorioz erabiltzaileei eragin dizkieten kalteengatik langile horiek eztabaidatuak izan baitira.

Proposatutako legezko testuak proba teoriko-praktikoa gainditzera behartzen die, baina ez du edukia zehazten eta garapen agindura bidaltzen du. Batzorde honen iritziz, aginduak gaien zerrenda edo edukia zabaltzearen zain, dekretuan V. eranskinak agertu beharko luke prestakuntzaren gutxieneko edukiarekin. Edukia honakoa izan daiteke:

- Eduki teorikoa: oinarritzko eskubideak, onartze eskubidea, establezimenduetan segurtasun neurriak, ixte ordutegia eta adingabeen lege araubidea...
- Eduki praktikoa: lehen sorospeneko oinarritzko kontzeptuak, arrisku egoeratan jarraitu beharreko protokoloa, autokontrolerako funtsezko teknikak eta muturreko egoeratan defentsa pertsonala...

IV.- GOGOETA BEREZIAK

II. kapitulua. Egite tokietako baldintzak

8. artikulua. Sute eta bestelako arriskuen arloan segurtasuna

Bigarren atala gehitzea proposatzen dugu hitzez hitz hurrengoa adierazteko:

2.- Nolanahi ere, establezimendu edo barrutiko planoen ale bat segurtasun arduradunaren esku egongo da, larrialdiaren kasuan segurtasun publikoaren zerbitzuei entregatzeko.

Aurrekoaren harira, gure ustez desiragarria da sutearengatik larrialdiaren kasuan suhiltzaileek eta larrialdiko taldeak instalazioei buruzko planoak izatea.

12. artikulua. Suteen kontra babesteko ekipoak eta sistemak

Honakoa aipatzen da:

“Beste arau batzuek xedatutakoaz gain, suteen kontra babesteko ekipo eta sistemei buruz gutxienez hurrengo neurriak izango dituzte eta suteen kontrako eskuzko babes ekipo eta sistema guztiak ikusgai eta irisgarriak geldituko dira eta beren funtzionamendu egoera ezin hobea izango da”.

Paragrafoa idatzia dagoen moduan (“honako neurriak” aipatzean), itxuraz, aurrez ikusten ez diren neurriak nahi gabe ahazten dira, beraz, idazkera berraztertzea gomendatzen dugu

26. artikulua.- Aldagelak

1. puntuak ondorengoa jasotzen du:

“1.- Kirol jardueretara bideratutako establezimendu berriak, dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera eraiki eta instalatzen badira edo aurrekoak izanik egitura berrikuntza osoa egiten badute, aldagelak arau honen erregelekin bat izango dituzte”.

Paragrafoa idatzia dagoen bezala, ahazten diren erregelak daudela ondoriozta daiteke, beraz, idazkera berraztertzea gomendatzen dugu.

III. kapitulua. Informazioa eta publizitatea

34. artikulua. Nahitaz ixteko denboraldia eta mugak

2. puntuak ondorengoa jasotzen du:

“2.- 3. eta 4. multzoetan dauden lokal edo jardueren kasuan, ixte edo jardueraren amaitze ordutegiaren (egiaz egina edo ez) eta irekitze edo hasiera ordutegiaren artean gutxienez sei ordu pasako dira”.

Gehiegizkoa eta justifikazio nahikorik gabekoa iruditzen zaigu ostalaritza lokalaren ixte eta irekitzearen artean sei ordu eskatzea. Gure iritziz gizartearen eske berriekiko egokiagoa da etenaldi murriztagoa zehaztea: 3 ordu.

40. artikulua. Edukia

4. puntuari buruz:

- Gure ustez sarrerak izan behar duen gutxienerako edukia gehiegizkoa izan daiteke d) (gutxi gorabehera amaiera ordu eta atatak irekitzeko ordua) f), i) eta j) atalei dagokienez.
- b) atalean, ordea, sozietatearen egoitza sartu behar delakoan gaude, bidezkoa bada, erreklamatu ahal izateko toki fisikoa izan dadin.

4.b) Pertsona antolatzailea eta sozietatearen egoitza identifikatzea.

42. artikulua. Salmenta

5. puntuan ondokoa adierazi da:

“5.- Pertsona antolatzaileak jendeari zuzenean salduk dio, zuzenean pertsona antolatzailearen bidez edo hirugarrenen bitartez, gainordainik gabe zuzenerako salmentaz edo komisioren arabera salmenta baimenduaz, gutxienez, sarrera mota bakoitzaren ehuneko hirurogeita hamar. Gutxienerako ehuneko ez da eskatuko ikuskizun publikoen edo aisialdi jardueren estreinaldietan edo ongizako emanaldiak direnean”.

Gure iritziz paragrafo honek nahastea sortzen du. Interneten bidez saltzeko aukera nola interpreta daitekeen zalantzak dakarkigu.

43. artikulua. Salmenta kanalak

2. puntuan ondokoa adierazi da:

“2.- Salmenta kanalak erabat irisgarriak izango dira eta interneti gordetako plazak erosteko aukera egongo da. Dena den, behar bezala identifikatu ostean, desgaitasuna duten pertsonentzat izango direla zehaztuko da”.

Puntua idatzi den moduan, lehenengo esaldia osatugabea da eta ez da ulertzen.

45. artikulua. Salmenta telematikoa

2. puntuan ondokoa adierazi da:

“2.- Programa informatikoak erabiliz ezin daitezke sarrerak erosi, erosketaren prozesua

komunikazio elektronikoaren sare edo zerbitzua erabiliz gauza daitekeenean eta eskaintza erosle bakarrik eros dezakeen sarrera kopuruaren mugatze-baldintzen arabera denean. Helburua jendeari zuzeneko salmenta segurtatzea da”.

Ez dugu puntu hau ulertzen eta gure buruari galdetzen diogu ezin al daitekeen pertsonako sarrera kopurua mugatu telematikoki erosten direnean.

48. artikulua. Abonua

Kontsulta organo honen ustez, agian, komenigarria litzateke “abonua” zer den definitzea.

49. artikulua. Bertan behera utzi eta dirua itzultzea

5. atala gehitzea proposatzen dugu hitzez hitz hurrengo adierazteko:

5. Zenbatekoa bertan behera utzi, atzeratu edo aldatzen dela iragartzen denetik 5 egunetik beherako epean itzuliko da.

Aurrekoari eutsiz, egokia dirudi pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak bermatzea, gehieneko epea, denboran gehiegi luzatzen ez dena, zehaztea dirua itzultzeko

VII. kapitulua. Egokitzapen eta segurtasun baldintzak

65. artikulua. Gaikuntza ezeztatzea

2. puntuan ondokoa adierazi da:

“2.- Ezeztatuz gero, baimen profesionala kenduko da eta ikuskizunen arloan Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunaren aurrean aurkeztuko da jakinarazten zaionetik hamar lanegun baliadunen epean”.

Gure iritziz, esaldi horrek idazkera korapilatsua du; baimena Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzan entregatu behar dela uler daiteke. Izan ere, Espainiako Errege Akademiaren arabera, “el cual” aurretik preposizioa jarri gabe bakarrik azalpen esaldiak egin daitezke eta goikoa zehazteko da. Horregatik, gatzelaniaz “el cual” ordez “que” erabiltzea proposatzen dugu (ikus azalpena irizpenaren amaieran).

66. artikulua. Betebeharra

Artikulu honetan establezimendu, ikuskizun edo aisialdi jardura motak arautzen dira, segurtasun zaindarien zerbitzua izan behar badute.

Dena den, segurtasun zaintzaren zerbitzuak izan behar duen gutxieneko hornidura ez da aipatzen. Gure ustez, establezimendu, ikuskizun edo jardura motaren arabera gutxieneko hornidurak zehazteko irizpidea definitzea desiragarria litzateke.

84. artikulua. Bermeak

b) atalak hurrengo dio:

“b) Istripuen arriskuaren eta hirugarrenekiko erantzukizun zibilaren aurrean boluntario partaideak aseguratzea boluntarioen erakundearekin hitzartu den baldintzetan edo boluntarioen

programan finkatzen den baldintzetan. Zereginetan aritzean istripu arriskuaren aurrean gutxienerako estaldura 100.000 eurokoa da”.

Boluntarioentzat gutxienerako estalduraren 100.000 euroko zenbatekoak zer irizpideri erantzuten dion ez dugu ezagutzen.

Seigarren xedapen iragankorra

Horrek honakoa xedatzen du: *“Dekretu hau indarrean sartzen denean sarbidea onartzeko zerbitzuaren berezko langileen jardueran diharduten langileek horretan jarrai dezakete eta gaitze baldintza ez zaie eskatuko dekretu hau indarrean sartzen den datatik bi urte igaro arte”.*

Establezimendu batzuetan alarma egoerak sortu direnez, bi urteko epea gehiegizkoa iruditzen zaigu. Horregatik, lanerako eskubidea eta profesionalizazioa bateratzeko, epea urtebetera jaitsi behar delakoan gaude.

Bestetik, 63.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak ebazpenez probak egiteko moduluak arautuko ditu (...), hortaz, *“dekretu hau indarrean sartzen denetik”* ordezkatzeari gomendatzen da eta *“onartze zerbitzuko langileak gaitzeko deialditik”* ipintzea.

V. eranskina

V. eranskina gehitu beharko litzateke *“onartze zerbitzuko langileak gaitzea”* 63. artikuluan xedatu ondoren, proba teoriko-praktikoan gaintitu behar den prestakuntzaren gutxienerako edukiarekin.

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, edukia honakoa izan daiteke:

- Eduki teorikoa: oinarritzko eskubideak, onartze eskubidea, establezimenduetan segurtasun neurriak, ixte ordutegia eta adingabeen lege araubidea...
- Eduki praktikoa: lehen sorospenerako oinarritzko kontzeptuak, arrisku egoeratan jarraitu beharreko protokoloa, autokontrolerako funtsezko teknikak eta muturreko egoeratan defentsa pertsonala...

V. ONDORIOAK

Euskadiko EGABren ustez ikuskizun publiko eta garapen jarduerari buruzko legearen garapen araudia onartzeko dekretu proiektua izapidetzea egokia da, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2018ko uztailaren 5ean

Presidenteak O.E

Francisco José Huidobro Burgos

Idazkari nagusia

Emilia Málaga Pérez

Eranskina

15. artikulua.- Eragin akustikoari buruzko azterlana.

1. puntuan ondokoa adierazi da:

“1.- Kutsadura akustikoaren aurkako babes araudiak edo tokiko ordenantzak hala eskatzen dutenean, gaitze tituluaren eskabideari edo alde z aurretiko komunikazioari laguntzen dion dokumentazioarekin batera, establezimenduaren edo programatutako ikuskizun publikoaren eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztuko da”.

Esaldi hau ez da ulertzen, “tokiko ordenantzak” terminoaren ondoren koma bat jartzen ez bada.

27. artikulua.- Aldagelak.

1. puntuan ondokoa adierazi da:

“1.- Kiroletarako ez diren ikuskizun publikoetarako establezimendu berriek artistek, antzezleek edo jasotzaileek parte hartzen badute eta dekretua indarrean sartu ondoren eraiki edo instalatu badira. Edo horren aurrekoek, egitura berrikuntza integralak egiten badituzte, aldagelak izango dituzte hurrengo baldintzetan”.

“Badira” ondoren koma dagokio.

39. artikulua.- Sarrerak eta abonua.

1. puntuan ondokoa adierazi da:

“1.- Ikuskizun publiko edo aisialdi jardueran sartzea eta bertan egotea baliozko titulua (sarrera, abonua, gonbidapena, pasea edo ikuskizun publiko edo aisialdi jardueran edukitzailearen sarbidea eta egonaldia baimentzen duen bestelako dokumentua) edukitzearen arabera izan daiteke eta persona edukitzaileei onartuko zaizkie ikusle naiz erabiltzaile bezala dituzten eskubideak eta betebeharrak, 10/2015 Legeak, abenduaren 23koak, ikuskizun publikoei eta aisialdi jarduerari buruzkoak, xedatutakoaren arabera”.

Esaldi honetan bi akats daude: batetik, zenbakiaren bateratasunik eza eta, bestetik, esaldiaren esanahia desitxuratzen duen hitza sartzea.

65. artikulua. Gaikuntza ezeztatzea

2. puntuan ondokoa adierazi da:

“2.- Ezeztatuz gero, baimen profesionala kenduko da eta ikuskizunen arloan Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunaren aurrean aurkeztuko da jakinarazten zaionetik hamar lanegun baliodunen epean”.

Azaltzen den modura, Espainiako Errege Akademiaren arabera, “el cual” aurretik preposizioa jarri gabe bakarrik azalpen esaldiak egin daitezke eta goikoa zehazteko da.

Ikusi ondorengo azalpena.

“El cual” izenordain erlatiboa da eta bere erabilera “que” terminoarekin txandakatzen du. Bata eta bestea, berriz, ez dira trukagarriak. “El cual” erabilera testuinguru mugatuagoak ditu, “que” terminoarekin alderatuz gero. Aurrerantzean izenordaina aipatzeko *el cual* erabiliko dut laburtzeko, baina egiaz bost forma har ditzake: *el cual, la cual, lo cual, los cuales* eta *las cuales*.

Izenordain hau betiere erlatibozko mendeko esaldiaren hasieran agertzen da. Erabilera aukerak esaldiaren izaeraren araberakoak dira. Dakigun bezala, erlatibozko bi esaldi mota daude:

- a) Zehazten duten erlatibozko esaldiak
- b) Azaltzen duten erlatibozko esaldiak

Lehenengoekin bakarrik *el cual* erabil dezakegu, **aurrean preposizioa badu**. Hau da, honako esaldia zuzena da:

(1) Este es el libro **sobre el cual** hemos hablado en clase.

El cual izenordainak hemen ezin hobeki ordezkari diezaioke *que* terminoari:

(2) Este es el libro sobre el cual hemos hablado en clase.

Beste esaldi hau, ordea, ez da zuzena, preposiziorik ez baitago:

(3) Valle-Inclán es un escritor se caracteriza por su prosa rica y refinada.

Aukera bakarra *que* da:

(4) Valle-Inclán es un escritor **que** se caracteriza por su prosa rica y refinada.

(3) puntuaren antzeko erabilera okerrak ohikoak dira idatzizko hizkuntza erabiltzean seguru sentitzen ez diren pertsonen idatzitako testuetan. *El cual que* bere hautabidea baino luzeagoa denez, garrantzitsuagoa iruditzen zaie eta, beraz, euren ustez idatzizko mintzairan aproposagoa da. Beraientzat tamaina garrantzitsua da.

Bigarren aukera **azalpenari** buruzko erlatibozko esaldietan erabiltzea da. Hemen ez dago mugarik. Lasai erabil dezakegu *el cual*. Hurrengo bi adibideak zuzenak dira:

(5) Me estuvo explicando todas sus aventuras, **las cuales** me eran perfectamente indiferentes.

(6) Tus gustos, **sobre los cuales prefiero no discutir**, resultan bastante sorprendentes.